

**2024KO IRAILAREN 24AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

BERTARATUAK

Mikel Iturbe Saizar
Idoia Garayalde Goicoechea
Noelia Lataburu Ortiz
Ioritz Lazcano Aranalde
Gorka Sagarna Larrañaga
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Begoña Tolosa Mendia

EZ BERTARATUAK

Olaia Nieto Legarra

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2024ko irailaren 24an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

Udalbatza audio sistema bidez grabatua izan da, grabaziotik ateratako fitxategi bat dago, idazkariak idatzitako aktarekin batera joango dena.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*2024-07-23ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2024KO UZTAILAREN 18TIK 2024KO IRAILAREN 18RA (2024/208 - 2024/255).

Alkatetzak 2024ko uztailaren 18tik 2024ko irailaren 18ra bitartean (2024/208 - 2024/255) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2024-KALD-0009 KREDITU GEHIGARRIAREN ONARPENA.

Alkateak hartu du hitza eta kreditu aldaketaren azalpenak eman ditu.



KREDITU ALDAKETAK

2024-KALD-000009-00
Kreditu gehigarriak

OGASUNeko BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Idazkari kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 92.536,09 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du.

IRURA, 2024ko irailaren 18an
Ogasuneko Batzorde Informatiboako idazkaria

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.227.920.00.47 2024	Nominaren kudeaketa teknikoa	0,00	27.650,00	27.650,00
1 0000.227.231.00.14 2024	Gizarte eta hezkuntza arloan	40.000,00	9.600,00	49.600,00
1 0000.201.920.00.00 2024	Apaiz ebeko lokalen alokairua	0,00	6.000,00	6.000,00
1 0000.227.920.00.01 2024	Garbiketa udaletxea	0,00	42.300,00	42.300,00
1 0000.220.920.00.02 2024	Kontsulta liburuak, aktak, harpidetzak	5.000,00	1.214,45	6.214,45
1 0000.121.151.00.00 2024	Soldata osagarriak.Hirigintza. F	38.578,95	5.771,64	44.350,59
GUZTIRA		83.578,95	92.536,09	176.115,04

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.282.000.00.01 2024	Zerga: Eraikuntza, instalazio eta obrak	57.000,00
c	2 0000.399.000.00.01 2024	Beste hainbat sarrera	35.536,09
FINANTZAKETA GUZTIRA			92.536,09

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen balio gabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

IRURA, 2024ko Irailaren 13an
Alkatea

BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.

4.- GALDE-ERREGUAK.

EAJ-PNVko Begoña zinegotziak hartu du hitza eta datozen Ordenantza fiskalen proposamena noizko izango den galdetu du, bere taldeak aztertzeko denbora izan nahi dute.

Alkateak hartu du hitza eta erantzun du gaia aztertzen ari direla, halaber, hondakinen tasaren igoera erabakia hartu beharko dela legeak defizita ez duelako onartzen.

Inguruko herrietan ezartzen ari diren igoerak aipatu dira eta legeak dionaren arabera igoera batz bestetik %20 inguruan dagoela.

Kalkulua egiteko garaian ere, eredu ezberdinak erabiltzen ari dira, alde finkoa eta aldakorra...

Begoñak hartu du hitza eta 2024an Tolosako mankomunitateari egin zaion ekarpenaren datuak eskatu ditu eta Idazkariak bidaliko dizkiola adierazi du.

Aurrekontuan jasotzen diren hondakinen sarrerak, herritarrei kobratzen zaien tasen kopurua erreflexatzen da.

Bukatzeke Gorka Sagarna zinegotziak adierazi du 2025eko aurrekontuak nola dauden, bere taldeak ere ekarpenak eta proposamenak egiteko aukera izan dezaten.

Alkateak, 2023ko kontu orokorra orain bukatu dela eta datuak aztertu ondoren, oposizioari ahal bezain azkar informazioa pasatzeko prestutasuna azaldu du.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.

